

Heriotzar en mendeurr enean, Sabino Arana Goiriren biografiarako (1865-1903), agiri, albiste eta zehaztopen barriak

Joseba Agirreazkuenaga Dr.

UPV-EHU

Sabino Aranak ekintzabide publiko nagusia Bilboaldean egin zuen eta artikulu honetan hari buruz argitaraturiko biografien laburpena azaltzen da. Nikolasa Atxikallende (1873-1951) S. Aranaren emazte izan zen eta bere biografia laburra egiten da, bigarren ezkontza eta 1937ko gartzelatzea barne. Agiri berrietan oinarriturik, elkarren arteko ezkontza hitzarmena eta lur batzuen erosketa aztertzen da. S. Arana Sukarrieta eta Busturialdean ezkondu ostean bizi dela, euskaldunen egoeraz erabat jabetu zen eta gizarte modernoaren aurrean zituzten aukera eta desabantailak ikusi.

Algunas puntualizaciones y documentos inéditos para una biografía de Sabino Arana Goiri en el centenario de su muerte (1865-1903)

En la primera parte del artículo se ofrece una breve recensión de las obras que han examinado la biografía de Sabino Arana Goiri que nació en Abando y desarrolló su intervención pública en Bilbao. La figura de su esposa Nicolasa Achica-Allende (Sukarrieta, 1873-1951) es objeto de una semblanza con información sobre su segundo matrimonio y encarcelamiento en 1937. Se aporta documentación inédita sobre las capitulaciones y relaciones matrimoniales entre Nikole y Sabin, la compra de una finca en Sukarrieta (Pedernales), en cuyo contexto S. Arana experimenta y reflexiona sobre la desigualdad y desventaja de los vascófonos en la nueva sociedad moderna.

New details and documents for a biography of Sabino Arana Goiri on the centenary of his death (1865-1903)

The first part of the article offers a brief review of the works that have dealt with the biography of Sabino Arana Goiri, who was born in Abando and developed his public activities in Bilbao. Similarly, the figure of his wife Nicolasa Achica-Allende (Sukarrieta, 1873-1951) is portrayed with information on her second marriage and imprisonment in 1937. Unpublished documentation is provided on the marriage contract and matrimonial relations between Sabin and Nikole, the purchase of a property in Sukarrieta (Pedernales), where S. Arana experienced and reflected on the inequality and disadvantages faced by the Basque-speakers in the new modern society.

Aitzin solasa

2003an Abandoko seme zen Sabino Arana Goiriren heriotzaren mendeurrena gogoratu da. Bilbotarren historiaz arduratzen den aldizkari honetan, aipamenik ezin da faltatu, haren jokabidea eta ideian oraindik orain eragin handikoak baitira Bilbon barrena. Besteak beste berak sortu zuen alderdiko kideek eskultura publikoa Albiako plazan jarri dute, A. Truebarena aurrez aurre duela eta Abandon S. Aranaren famili etxea kokaturik zegoenaren ondoan. Eskultura berri honen bidez, Albiako plaza Bilboko iraganeko memoriarako gaurkotze lekua bereizgarrietakoa bihurtu zaigu. Hiritarrek aukera ederra dute iraganeko historiaren laburpen zehatza lortzeko, Albiako enparantzan dauden eraikin eta bestelako erreferentzien bidez. Hiri kultuak behar du zaindu bere ingurunea eta iraganeko ildo, iragana eta etorkizunaren arteko zubia orainaldian bizi garenok sortzen dugulako. Eta testuinguru gabe, oraingoz behintzat, gizakiok ez dakigu egokitzen eguneroko bizitzaren zereginetara. Espero dezagun, beste eskultura eta ekintza publiko zein pribatuen bidez hiritarrak etorkizunaren proiektuan gehiago trebatzeko balio izatea, iraganeko begiruneak. Zalantzarik barik, Bilbon eraberritze prozesuan aberastasun iturria izango da. Jose Antonio Aguirreren eskultura berriak ere ildo berean aberasten du Bilbotarren bizitza kolektiboa.

Sabino Arana, 1865ean jaio zen Abandon eta 1903an Sukarrietan hil zen. Mendean barrena haren biografia, ekintzabide politikoa eta idazlanak hainbat ikerketa eta solasen abiapuntu izan dira. S. Aranak alderdi politikoa sortu zuen Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta Bilbon izan zuen bere lehen egoitza edo Batzokia, antolakundea eta zabalkundea. Bilbo-Abano ardatzetik pentsatua izan zen eta bazirudien bilbotarrentzat asmatu alderdia zela. Sabinoren jarraitzaileek, bere pentsamoldea eta biografia portaerak erduztat eta gurtzeko gaia bihurtzeko, ahalegina bizia egin dute. Beraz, mendea igaro arren, ez da erraza, azterketa. Pertsonaiak, nola edo hala, bizirik dirau eta eraginkorra da hainbat arlotan. Hala ere, doktrina ideologiko eta ekintzabide politikoaren arabera begiratua eta interpretatua izan da. Baina horrez gain, nire ustez, ezin da bere egitasmoa eta biografia zuzen interpretatu ez badugu pertsonaia kokatzen Bilbo-Abando inguruko euskaltzaletasun giroaren baitan eta harian kokatzea. Adibidez, argitaratu zuen lehen lana Euskal Akademiari buruzko izan zela, 1886an *Euskal Erria* izeneko aldizkarian, (“El proyecto de Academia Bascongada del Sr. Artiñano”). XIX mendean erdian Abandon finkaturiko beste euskaltzale batek, J.P. Ullibari honezkero proposatu zuena eta ondoren Aristides Artiñanok. Bizenta Mogel eta Pedro Novia de Salcedo izan zituen aurrekari zuzenak eta euskaltzaletasun joera hau karlisten eta tradizionalista politikoen ildokoa zena, Sabino Aranaren pentsamoldearen aurrekari zuzen zuzenak dira. Hala ere euskaltzaletasuna ez zen karlista-tradizionalistena bakarrik, askoz zabalagoa baizik. Euskaltzaletasunaren arbolak adarrak ditu han eta hemen Baionan Agustin Txaho, Arturo Campion Iruñean, Manterola Donostian eta Fermin Herran Gasteizen

Sabino Aranari buruz argitaratu diren lanen artean, lehendabizi Bilboko Juventud Vascak haren irudia eta mezua goratzeko landu zuen ikuspegi hagiografikoa gogoratu behar dugu. *Euzkadi* egunkaria sortu zenean, sarritan, E. Arantzadi “Kizkitza” egunkariko zuzendari zena, adiskide eta jarraitzaile izanik, eten gabe gogoratu zuen. Baina, batez ere Comunion Nacionalista Vasca alderdi berriaren ildo autonomista 1915-1920 urte bitartean nagusitzen zegoela, tarteko E. Arantzadi ideologoa zelarik, Bilboko Juventud Vasca taldekoek euskal abertzaletasunaren sorrera jatorrizko ikuspegi erlijiosoan landu zuten. Giro horretan, S. Arana maisua bihurtu zuten eta bere bizitza ikuspegi historiko probidentzialistaren aldetik interpretatzen hasi ziren. Sarritan, Eliza katolikoaren salbazioaren historiaren pareko paradigma historikoa erabili zuten, euskal abertzaletasunaren sorrera eta halabeharrezko garapena azaltzeko. Joera hau sakonago nabarmendu zen oraindik 1921ean EAJ-PNV berriz eratu zutenean. *Aberri* izeneko agerkarian 1922an haren omenez egindako ekitaldian, interpretazio moldea arautuko da edo gero *Euzkerea* izeneko aldizkaria S. Aranari buruzko aipamenak eta haren lan laburrak eten gabe argitaratu ziren, beraiek zirelakoan jatorrizko Sabinoren jarraitzaileak. Aurrerantzean, Sukarrietan bilkurak eginez, “euskal abertzaletasunaren maisuaren” omenez goraiatze eta gurtze ildoak areagotu egin zen.

Hermes aldizkariaren zuzendariak Jesus Sarriak Bilboko Juventud Vascan hitzaldi jakingarriak egin zituen. Jatorriz kubatarra zen, La Habanan jaio eta hezia eta euskal abertzale ikuspegia ezkerreko balore laikoetan oinarritzen saiatu zen, euskal abertzaletasunaren eremua zabaldu asmoz, M. Unamuno eta S. Arana batera eta elkaturik, aitzindari nagusiak zirela. Hala ere, S. Arana aintzakotzat zuen eta horrela 1919ko *Hermes* aldizkariako 51 eta 52 zenbakiak Sabino Aranari buruzko monografikoaz jantzi ziren. Beharbada, askoren artean idatziriko lehen lan monografikoa bildu eratu eta burutu zuen. Besteak beste J. Sarriak “La inmortalidad de Arana-Goiri” izeneko artikulua idatzi zuen. Biografiaren ikuspegitik, Carlos Baraibarrek idatzi zuena gogoratzea egokia da, garaian garaiko giroaren erakusle eta goian aipatu dudana joeraren isla delako. Autore honentzat, S. Aranaren bizitza eusko abertzalearen arketipoa zen: *“Sabino es inmortal porque su vida continua entodos nosotros(...) no se produjo en este Pais hombre de importancia más capital”*. Ildo berean bere interpretazioa: *“A nosotros nos interesa mucho más el hombre. Creemos de mucho más valor su vida que sus obras (...)no hay nada más conveniente al patriota que la meditación sobre la misma vida de Sabino, porque ella y el Nacionalismo, si no se confunden, es porque son una misma cosa. Y no hay desdoblamiento posible”*

1935an, Juventud Vascako buruzagi izan zena eta 1921an EAJ-PNVren sortzaile, Ceferino Jemeinek *Biografía de Arana-Goiritar Sabin e historia gráfica del nacionalismo* liburua argitaratu zuen. Bilboko Juventud Vascaren ekimenez burutu zen liburua. Hala ere, liburu hau, irudiz beteriko historia dugu, idatzia

baino. Biografia zehatzari dagokionez, gehien bat S.Aranaren arrebak, Paulinak, idatzi zituen memoria idatzian oinarriturik dago. Alde honetatik barruko eta hurbileko testigantza zuzena lortzen da eta berau ikerketa ikonografiko benetan jakingarria den Bilbo-Abandoko testuinguru eta giro sozialean gihartzen du. Horrez gainera, Manuel Eguilleorren (“ikasle”) artikulua edo Enrique Orueta (“Jabier de Legiaren”) gerra karlisten interpretazioa ere eranstean dira. Berez, ikerketa ikonografiko aberatsa da eta pertsonaia zein euskal abertzaletasunaren sorrera, Abando eta Bilboko mikrohistoriaren baitan kokatzen du. Beranduago, autore honek, erbestaldian, lan handia egin zuen, S. Aranaren lan osoak biltzeko unean. 1950ean Baionan erbestaturik zeuden jeltzaleek Sabindiar Batza erakundea antolatu zuten.

S. Aranaren jaiotzaren mendeurrenaren inguruan, 1865ean, berriz ere hainbat lan argitaratu ziren. Bereziki gogoratzea da, Sabindar Batzak, I. Gurrutxagaren zuzendaritzapean, lan osoak Buenos Airesen argitaratu zituela. J.M. Areilzak, Bizkaiko Diputazioaren aldizkarian mendeurrena gogoratu zuen. J.Rezola edo P. Lafittek ere idatzi zituzten biografia, Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos aldizkariak artikulua bildu zituen. 1972an. I. Gurrutxagak fuerismotik euskal abertzaletasunaren jauziaren garrantzia azpimarratu zuen. J. C. Larrondek doktorego tesia idatzi zuen S. Aranaren lanak abiapuntutzat harturik. Beranduago J. Corcuera ikerketa sakona argitaratu zuen, bere testuinguru politikoan, Bilbo-koan, kokatuz, euskal abertzaletasunaren lehen erakundetzea eta doktrina politikoaren oinarriak aztertuz. Joxe Azurmendik hordago argitaletxean S. Aranaren pentsamendu politikoaz idatzi zuen, euskaraz egindako lan sakonena agian eta ondoren Sendoa argitaletxean, Martin Ugaldek S. Aranaren lan osoen bigarren argitalpena eginez, beste biografia orokorra idatzi zuen. Biografiarako iturburu jakingarriak erabiliz, ondoren, Mauro Elizondok *Sabino Arana padre de las nacionalidades. Correspondencia inedita de los hermanos Arana Goiri. Legajo Aranzadi*. Bilbon 1981an argitaraturikoa garrantzi handikoa da. J. Turucetaren eraginez, J. Corcuera eta Y. Oribek *Historia del nacionalismo vasco en sus documentos*, 1991an hiru liburukitan argitaratu ziren. 1998an M. Atxagak bidegileak sailean euskaraz egin den biografia, argitaratu zuen eta Deia egunkariaren ekimenez Josu Turucetak prestatuturikoa aipatu behar. Azkenik, Sabino Arana Elkar-goak, Sabino Aranari buruzko agiritegi zabala sortu eta antolatu du, Arteako herrian. Agiriak ondo sailkatutik daude eta kontsulta egiteko errez dago.

Aipaturiko Sabino Aranari buruzko artxiboko agiriak, liburuak eta artikulua aintzat harturik, lan honetan, nire helburua, S. Aranaren biografia ezagutzeko ekarpen zehatzak burutzea da. Batez ere, bizitza pribatuari loturik daudenak eta bereziki ezkontza eta bere emazte zenaren Nikolasarekiko. Bestalde, erabilitako sorburuak eta agiri batzuk, ez dira hain ezagunak Nikolasa Atxika-allenderen oinordekoak, Mari Carmen Aizpuruak gorderik izan dituelako. Beraz, bere heriotzaren mendeurrenean, etorkizunean S. Aranaren biografia pertsonala sakonago ezagutzeko ekarpena izango delakoan idatzi dugu ondokoa.

Nikolasa Atxika-allende, (Sukarrieta (Pedernales) Bizkaia. 19.IV.1873-Sukarrieta (Pedernales) Bizkaia. 20.III.1951) Sabino Aranaren emaztea

Nikolasa, Abiñako edo Arbiña baserrian jaio zen, herriz Sukarrieta eta elizaz Busturia, 1873ko apirilaren 19an, Sandindereko uharte ondoan, beraz, Urdaibai itsasasadarraren gunearen erdi erdian. Gerra giroa zabala bizi zuen Euskal Herriak, Espainian konstituzio federalean oinarriturik, Errepublika federala indarrean zegoen bitartean. Karlistak, bereziki Euskal Herrikoek, arrakasta irabazten hasi ziren errepublikaren aurka. Sabino Aranaren aita, armen trafikoan karlisten alde burubelarri sarturik zegoen eta Urdaibaiko itsasadarra armen sarrera lekuetarikoa zen, Karlos VII, errege eta agintari Espainian jartzeko helburuz. 1937an, euskal karlistak, armak eskuetan oraturik, II Errepublika desegiteko, berriz altxatu ziren eta Espainiako iparraldean, altxatuen aldeko ekimen estrategikoa burutu zuten bereziki Euskal Herrian. Ondorioz beste gerrate bat jasan behar izan zuen Nikolasak eta bigarren horretan atxilotua ere izan zen.

Abinako baserria Sukarrietan zegoen kokatua, itsasadarraren hegalean, Busturiako lurrez inguraturik, Jose Mari Atxika-allende, Errigoititik Abiñara ezkondu zen, dote faltsua ekarri zuela. Ama, Maria Iturri Abiña, Abiñakoa, bertakoa. Zazpi semealaba izan zituzten, baina laster, Nikolasa bihurtu zen nebarreben arteko gazteena. Gregoria zaharrena, Francisca, Francisco, Grabiél, Monika eta Nikolasa. Sukarrietako eskolara joan ziren, oinarritzko hezkuntza hartzera eta gero Abiñako baserrian lanean. Monika, Mungiako okinarekin ezkondu eta okindegia Cardiffen antolatu zuten, burdin mea garraiotuz eta bertako ikatza ekarriaz, Bizkaitarren giroa sortu zelako, izugarritzko merkataritza eta aberaskuntzaren harian.

Sabino Arana Sukarrietan

1883an haren amak Sukarrieta aukeratu zuen uda igarotzeko famili osoarekin eta ondoren irailean Bartzelonara joan ziren Sabinok Unibertsitatean ikasketak hasten baitzituen. Hurrengo urteko udaran, 1884ean, Ramon Mentxaka adiskidearekin, berriz ere Sukarrietan egon zen Sabino, Eusebio kate edo bidesariaren arduradunaren etxean.. 1885an berriz familia osa Sukarrietan igaro zuen udara, Sabino Abandon egon arren.

1888an otsailaren 11an hil zen Sabinoren ama Batzelonan eta nebarrebak Abandoko etxera itzuli ziren, Sabinoren ikasketa unibertsitarioak amaitu gabe gelditu zirelarik. Beraz, gazte gazterik, bere gurasoekin Urdaibaiko itsasadarre-ra joaten zen eta adiskide onak egin zituen. Basurdeen ehiza gogoko zuenez gero, bertako lagunekin Kanalako basoetara joaten ziren. Alboko herrian, Arteagan bizi zen A. Zabala, “Kondaño” Sabinoren heriotzaren ondoren, E.A.J. alderdiko buruzagi izango zena.



Sabin eta Nikoleren arteko ezagutza

Nikolasaren ezagutza, Sabin Aranaren euskal izendegiaren arabera aurretzean Nikole, tokian tokiko ahozko tradizioaren kontakizun batzuen arabera honela izan ei zen : Behin Kanaleko adiskideekin batera, basurdea bizirik hartu ei zuten eta J.M. Atxika-allederen kortara ekarri zaintzeko eta gordetzeko. Bertan zegoela, baserriko neskatilak ezagutu ei zituen.

J.M. Atxika-allende Sukarrietako udaleko zinegotzia eta alkate ere izan zen eta, Sabino Kanalera, itsasadarraren bestaldean, herriz Sukarrieta dena, sarritan etortzen zen ,”Kafranka” izeneko etxera.. Elkarren arteko hartuemonak landu

zituzten. Eta bere baserri etxeko gela eskaini zion eta bertan apopilo hile bazuetan egon zen. Sabinen gutunetan azken gertakizun hau bai baieztaturik agiri da.

Sabino Arana 1898ko irailean Bizkaiko Diputazio probintzialeko Diputatu atera zen, Bilboko barrutian, “piña” delako kandidaturen aurka sortu zen koalizio zabal baten buru, hau da, Victor Chavarri industrial gizon kementsuaren taldearen aurka. V.Chavarri, Bizkaiko politikagintzaren buruzagia zen, Canovas del Castillok sortu zuen alderdi politiko eta konstituzio politiko kontserbadorearen sostengua eta ordezkaria hain zuzen ere..

Sukarrietatik Bilbora trenea zuen eta bere zeregin politikoak bideratzeko, Bilbora sarritan joan behar izaten zuen, Bizkaiko Diputazioko karguaren zereginak betetzeko eta bestelako politikagintzan aritzeko.

Bizkaiko Diputazioko diputatu zela, gogoratzekoa da 1898ko azaroaren 28an, “Consejo Regional” delako sortzea proposatu zuela, hau da “*una Junta superior de representantes de Alava, Guipuzcoa, Navarra y Vizcaya cuyos fines serán a) guiar con voz de consejo a las Diputaciones de dichas cuatro Provincias en las relaciones de las mismas con el Poder central.*” Hau da, Diputazio probintzialak elkarren arteko bilkurak egiten zituzten, ohizko “konferentziak” eta bilkura horien erakundetzea proposatu zuen. Bestelako Diputatuek erantzun zioten badaezpada ez zela premiazkoa horrelakorik. Hobe zela, bilkurak bere horretan jarraitzea, botere zentrala eta diputazio bakoitzaren bitarteko aginterik sortu gabe.


Sabino Aranak Sukarrietan lurrak erosi, ezkondu eta euskaldun izatearen desabantailak ezagutu



Engrazio Aranzadi adiskide donostiarrari, 1899ko martxoaren 28an, zera idatzi zion: 1898ko urtarrilean Abiña baserriko lur saila erosi zuela, “utxurburugane”(iturburu agirietan) izenekoa eta frutarbolak lantzen zegoela ezagutu zuela Nikolasa. Bost hilabete apopilo bizi izan zela Abiñako baserrian, beste ahizpa bat zerbitzari zuela. Esamesei aurre eginez, Sukarrietako errepide erdiko aldapan zegoen etxe batera aldatu zela.

Pedro Pablo Amesti eskribauaren aurrean eginiko eskrituraren bidez, Abiña baserriko jabe ziren J.M Atxika-Allendek eta M.A. Iturrik, Paulina Aranari, Sabinoren arreba, Abiñako baserriko Iturburu izeneko lur saila saldu zien. Ondarza ondoan zegoen, 9.058 metro kuadratzukoa guztira, hau da 2381 estadu. Lurraren erosketetan Paulina arreba agiri da erosle moduan baina berez Sabinoren erosketak ziren edo Aranatarrena. Dena dela, Sabino Arana hil zorian zegoela, 1903ko azaroaren 7an bere arrebari erosi zion aipaturiko lur saila “a título oneroso” Jose Mendieta eskribauak formalizatuz, testamentuaren bidez ondasuna ondoren bere alargunarentzat izango zedila. Behar-

bada, politikagintzaren ondorioz isunak eta beste kalte ordainak ordaintzera kondenaturik zenez gero, badirudi arrebaren bidez ondasunak babestu egin nahi zituela. Paulina Arana eta senarra Alfredo Urkizu Zorrilla Foruan bizi ziren.

Erosi zuen lur saila zabaltzeko asmoz, mugako zuen beste lur saila bereganatzeko, 1898ko martxoaren 31ean, akordio pribatua egin zuen Txatxarramendiko ostatuan, testiguak zirela, Jose Maria Atxikallende Atxirika, Sukarrietakoa eta Martin Eskibel Arronategi Busturiakoa. Delako hitzarmen pribatua apirilaren 3an sinatu zuten Juan Jose Foruria testigu berria zutela eta azkenik erosketako legezko eskriturak ezkondu eta gero burutu ziren, 1900eko martxoaren 31ean. Berriz ere eroslea Paulina Arana agiri da baina hitzarmenen pribatuaren agirian, argi eta garbi, Sabino Aranaren ekimena zela agiri zaigu.





Saltzaileak Higinio Goitia eta Josefa Markaida Santarena baserriko jabeak. Erositako lurra zati bi zituen: Trenbidetik itsasoraino, Abiña baserriari erositako luraren muga. Urdaibai inguruko tokirik ederrenetarikoa, itsasadarraren gunean bertan eta aldi berean babesturik, gauregunean umeen koloniarako eraikirik dagoen lurra litzateke. Zati horrek 2.252 estadu, (8.566,608 metro kua-dratu) bakoitzeko 5,50 pezetaren kostua zuela. Bigarren zatia trenbidea zeharkaturik zegoen lur sail txikiagoa, 417 estados (1.587,02 metro kuadratu), 4 pesetetan estadu bakoitzeko. Guztira 15.214,30 pezeta. 5000 pezeta 1899ko apirila baino lehen ordaintzeko ardura hartzen zuen Sabinok eta gainerakoa 1900eko apirilaren baino lehen. Denbora bitartean, ordaindu behar ziren interesak % 4koak eta ondorioz guztira 1.525, 33 pezeta gehiago ordaindu behar izango zituen.

Beraz, badirudi, S.Aranak Sukarrietan finkatzeko asmoa hartu zuela eta lur sail ederra bereganatu zuen seguru asko bertan etxea eraikitzeko asmoz.

Urte baten buruan, 1899ko martxoaren 22an *El Nervion* Bilboko Gandarias-tarren egunkari monarkikoan Busturiatik albistea igorri eta argitaratu zen, Sabino eta Nikolasaren arteko harremanen berri emanez, izenik aipatu gabe, hau da, gizon publiko ezaguna eta herriko neskatxaren arteko harremanaren albistea. Elkarrekin pasean ibiltzen ei ziren eta herrian horrelakoa, antza denez, ez zegoela ondo ikusia eta, zirrikada legez agiri zen.

Bestalde, Sabino eta Nikolasaren arteko harremanak ez ziren ez begi onez onartuak izan S.Aranaren ahaide eta lagunengandik inguruan ere. E. Aranzadiri idatzion gutunean, zera adierazi zion: Alde batetik bere nebarreben ustez, baserriko neska ez zen pertsona egokia bere klase sozialeko gizon publiko bati zegokion ezkontza burutzeko. Bestalde, Nikolasaren ahizpa zaharragoak ere adi eta tente zituen, lehiakor eta aurkari legez, berez zaharragoak izanik, lehentasuneko eskubidea edo eskatuz. Azkenik, EAJko alderdikideek ere ez zuten onartzen buruzagiaren ezkontza. Horregatik, Anjel Zabala adiskidea, herriz herri joan behar izan zuen azalpenak emanez.

Baina Sabinekin, jardun politiko publikoan itzala zuen unean, ezkontzeko hautua hartu zuen eta berehala zeregin nagusitzat hartu zuen emaztegaiaren prestakuntzan aritzea. Aurrerantzean, baserriarra janzkera, aitzurra eta plazako otzara, bere emazte izango zena albo batean utzi behar zituen. Sabinen aginduz (1899-XI-28) *“debe ir al Colegio para aprender algunas materias y adquirir la educación exterior necesaria para alternar con mi familia”*. Beraz, sei hilabetez, Bilboko karmelita mojen ikastetxean sartu zuen, “madre Paz” irakasle zuela, gaztelania eta Bilboko burgeseriaren gizarteko ohiko portaerak behar bezala ikasteko. Kolegioan, “señorita” bihurtu behar zuten, harreman sozialetan jaioa, protokoloan aditua eta abar. Bilboko garaiko burgeseriaren giroko sinismenak, portaerak eta moldeak ikasi omen zituen, baina lobaren iritzian, *“erde -ra beti apurtu egiten eban”*.

Bere andregaiaren itxura fisikoari dagokionez, hara zer idatzi zion adiskide donostiarrari: “*Y mi futura compañera es una sencilla y humilde aldeana de la Anteiglesia de Sukarrieta(Pedernales)(...) su físico no pasa de regular ni en el rostro ni en el talle(...)* Me ama como nunca creí que pudiera amar mujer”.

Bestalde, Sabineek ez zuen gogoko haren lehen abizenean Allende ikustea. Emaztegaiaren abizen guztien azterketa egin zuen eta pozarren zegoen, 126 abizen euskaldun zituelako eta laster batean itsatsitako allende delakoa, kentzea lortuko zuela.

Ezkontza aurreko hitza 1899ko abenduaren 8an izan zen eta ezkontzako kapitulazioak 1900eko urtarrilaren 29an sinatu ziren, beraz, ezkontza eguna baina lau egun lehenago.

Ezkontzako kapitulazioak sinatzeko aurkeztu ziren, alde batetik Jose Maria Atxica-Allende, María Antonia Iturri eta Nicolasa Achica-Allende, 25 urtekoa, “ocupada en labores de casa” eta bestetik Sabino Arana, 35 urtekoa”dedicado al estudio”. Laurak agiri dira Sukarrietako auzokide legez. “cédulas personales de novena, decima y undecima clase”koak, Sukarrietako alkatetzak sinatuak.

Nikolasaren amak Maria Antoniak hartu zuen Abiñako baserria, 1855ko azaroaren 15an, J. M. Atxica-allenderekin sinaturiko ezkontzeko kapitulazioen bidez: 238 metro kuadratzeko baserri etxea: bi gela bakoitza bi logelaz, eskatza, egon gela, korta eta labea. Baserriaren lurra 10239 estados guztira, hiru hektarea eta 89 area, 53 zentia eta 2 dezimetro kuadratu. Mendian, zati bi zituen: 1,10 hektareazkoa bata eta bestea 76 areakoa. Bi zenso, bakoitza 100 dukat, hau da 275 pesetazkoa, urteko %3 ordaintzeko. Baina goian aipatu dugun legez, jabetzaren zati bat saldu egin zen, Paulina Aranari edo hobe esan Sabino Aranari eta ondorioz azkenik gurasoak Nikolasarentzat egindako donazioa guztira, 2 hektarea, 98 area, 94 zentia eta 87 dezimetro izan zituen. Bere balioa guztira 11.000 pezetakoa izango zela kalkulatu zen. Horrez gain, Nikolasak ekaritzen zuen arreea jantzietan 1000 pezetakoa zen eta altzarrietan 250 pezeta.

Gurasoak bizi diren bitartean, baserriaren gozamenaren erdia gozatuko dute. Ezkondu berrientzat donazioa dela eta Sabino Aranak 8.250 pezeta (33.000 erreale) metalikoan ordaintzeko erantzukizuna hartzen zuen. Honezkerro, 3.050 pezeta (12.200 erreale) ordaindurik zituela baieztatzen da kapitulatuan, beste 700 pezeta (2.800 erreale) egun berean ekarri zituen eta “*las restantes cuatro mil quinientas, (diez y ocho mil reales) les entregara cuando los donantes gustasen pedir, bien Don Jose María, si viviesen ambos o cualquiera de los dos caso de la muerte de uno de ellos*”. Bitartean ordaintzeko gelditzen zen ganera %4 interesa gehituko zen. Nikolasa izendatu zuten Abiñako tronkalekotzat eta Jose Mari eta Maria Antoniaren gainerako semealabak alde batera apartatuak ziren, Bizkaiko foruaren aginduetara egokituz. Horrez gainera Sabino Aranak adierazi zuen “*que por evitar proligidades no especifica en este lugar, no puede significar cuales bienes posee ni a cuanto asciende su valor*”. Berriz azpima-



Nikole eta Sabin, Loiolan, gogo jardunak egin ondoren, ezkondu aurretik. 26-XI-1899.

rratzen du eskribauak 3.050 pezeta ordaindu behar zenaren gainera egintzat ziurtatzen dela eta beraz horretan finkatu zen hitzarmena, baserri giroko ohiturari jarraituz, Nikolasaren ekarpena baserriaren tronkalarena izan zelarik ezkontzara

Ondoren, 1900ko otsailaren biam, kandelario egunean, Abiñako S. Antonioko ermitan Arteagako apaizak ezkondu zituen. Sabinekin ez zuen nahi etxekoez gain kanpoko beste inor bere ezkontzan izatea, bere ustez, *“debe romperse con la rutina y la moda y ajustarse a la razon y por esto omiti el aviso”*(...) *“pensaba venir mucha gente a presenciar mi casamiento con una aldeana y quise no dar gusto a su curiosidad”*. Ezkontza beraz, ahaideen arteko eleizkizun pribatua bihurtu zuen nahiz eta

zeremoni ostean, bolandera zaratatsuak bota eta “Erramonaneko” etxean bazkaria egin. 37 urte beranduago, jantoki berekoak, jeltzaleak ziren eta ostalaria D. Lekunberri hartu eta fusilatu egingo zuten, besteak beste, Nafarroako karlisten buru zetorren Solchaga jenerala, Busturialdea konkistatu ondoren.

Senar emazteak elkarrekin, Lourdesera bidai luzean joan ziren baina bertan larri gaixotu ziren, batez ere Sabin. Bere anaia Luis Baionan bizi zena eta arreba, Lourdesera joan ziren.

Urte bereko abuztuan, Nikolek, umekia galdu zuela adierazten dio Sabinekin E. Aranzadi adiskideari eta inguruko herrietan ere hainbat gertatu zirela. Kezkaturik agertu zen, zergati garbirik ez zutelako aurkitzen. Bigarren umekia ere Nikolasak galdu egin zuen.

Bien bitartean, berriro ere preso sartu zuten Sabin. Gutunak irakurriaz, badi-rudi Nikole urrundurik egon nahi zuela senarraren ekintzabidetik eta Sabinekin ez zuen bidezko ikusten. Adibidez S. Arana Larrinagako kartzelan zegoenean, Bilbora bizitzera etortzeko eskatu zion bisitak sarriago eta errazago egiteko baina Nikolek Sukarrietan bizitzen jarraitzea erabaki zuen. Gutunak izango ziren elkarren arteko lotura. Kartzelan zegoela 1902an, etsiturik agian, gogoeta egiten

du eta prozesu eboluzionista eta espainolista deiturikoa hasi zuen. Hau da, garaiko legediaren mugak onartzea eta bere ekintzabide politikoa horretara egokitzea pentsatzen du. Horretarako, alderdi politiko berria asmatzen du Liga de vascos-españolistas, Liga izenak beharbada Katalunyako Lligaren ildo jarraitu asmoz dela dirudi. Beraz, fundatu zuen alderdiaren ekimena zabaltzeko balioko zuen horrela eragin sozial zabalago lortzeko. Baina aldi berean, premiazko ikusten du kide gutxi batzuen artean, jatorrizko pentsamenduaren printzipioen irmotasunean iraun araztea, lehen zirkulu itxia balitz bezala. Dena dela 1902ko abuztuaren 15ean Bilboko presondegian zegoela, etsiturik, konturatzen delako bere ekintza publikoa oztopatzeko preso harturik zutela zergati sakonik gabe, ausnarketa giroan, bere emazteari idatzi zion *“Además, después de esto ya nunca más en toda mi vida me veré en estas cosas, porque el partido nacionalista morirá este mismo año y los nacionalistas se harán españoles... (ezin da irakurri) ¿no? habrá más cárceles y juicios para ellos. Yo me retiraré a casa, a descansar y ya no habrá peligro ninguno para mí.”*

Euskal politika abertzalea beste era batera bideratzea nahi luke. Gogoratu behar da, aldi berean, euskal kultur gintzaren garrantziaz gehiago jabetu zen. 1901eko euskararen kongresuan Hendaian partaide zuzena izan zuen. Komunikabideak sortzeko grina berezia erakusten du. Pixkundera izeneko ekintzabidea indartu. Une batez adierazten dio adiskideari, euskara XX mende bukaerara, beharbada, ez zela bizi bizirik iritsiko. Euskararen etorkizunari buruz, beraz, zalantza handiak zituen, desagertzeko bidean ikusten zuelako eta Sukarrieta-Busturian barne barnetik bizitzen zuen esperientzia adierazgarria da. 1902ko urtarrilean, Victor Bilbao, Busturiako maisuak, eratzuna erabiltzen zuen mutikoen gaztelaniaz hitz egin zezaten, eskolan ez ezik, kalean ere. Asteburuan eratzunaren jabe zena, euskaraz mintzatzen zelako, zigorra jasotzen zuen. Sabinok, igandean, haurrari eratzuna kendu zion eta beretzat gorde zuen. Bere portaeraren barri maisuari gutunez azaldu zion eta eskola maisuak aurka egin ez ezik eskatu egiten dio eratzuna eta zera erantzun zion: *“y para demostrar que soy tan vizcaíno como V. ya que le he indicado que soy español, le voy a hablar en mi apreciable lengua euzkara(sic), lo que V. dejó de hacer en la suya”* eta gutunaren amaiera euskaraz idatzi zion, 1902ko urtarrilaren bian. Beraz euskararen etorkizunari buruz kezkatu zegoen baina aldi berean eta urte bete lehenago, 1901eko urtarrilaren 5ean, E. Aranzadi adiskide donostiarrari honako hau idatzi zion : *“cuando me pongo pensar, así sobre esto como sobre la raza, comprendo claramente que esto se va: se va antes que termine el siglo que acaba de empezar. El único remedio está en el dinero: y éste no se encuentra. El aldeano sabe de sobra que el euzkera de nada le sirve al hijo. El remedio está pues en fundar industrias, adquirir caseríos, sostener compañías navieras.. nacionalizando todas esas esferas de la vida, de suerte que el euzkera sirva de algo, porque sea obligatorio para tener parte en ellas”* Ildo berean, irakaskintza euskaraz bideratzeko, Hermanos de las Escuelas Cristianas delako Kongregazioak bildu eus-

kaldundu ondoren euskaraz irakas ditzaten edo maisu-anderenoentzat irakasle eskola euskalduna sortu, proposatzen zuen. Jakina, diru baliabideak behar ziren eta azkenik idatzi zuen : “ *las cátedras para enseñar el euzkera, no en euzkera, resultan poco prácticas. Es lujo aprender una lengua que no es útil; siempre es útil aprender las cosas en cualquier lengua que sea. Se pretende conseguir algo del Gobierno central: inutilmente*” Ulertzen hasi zen, euskara, bizitza modernoan komunikabide soziala bihurtu ezean, jai zeukala. Horregatik, erabat ulergarria egin zitzaion, baserri giroan bizi zirenek, euskara alboratu nahi zutela. Azken batean, euskara oztopo zelako bizitza moderno sozialean aritzeko. Beraz ez zuen harrituko aurrerantzean, barnetik ikusi zuelako, euskaldun arruntak euskara baztertzea, bizimodua ateratzeko, laguntza baino oztopo gehiago zelako. Beraz, neurri zehatzak hartu behar ziren, eragin sozialekoak, hezkuntzan eta bestelakoetan, euskal hizkuntza funtzionala bihurtu zedin bizitza modernoan. Bilakaera argia, alegia, hamar urte lehenago uste zuenaren parean, Busturia, Sukarrietan, populazio euskaldunaren baitan bizi giroan zegoela. Euskaldun izatearen desabantailak Euskal Herrian ezagutzeko eta sentitzeko aukera izan zuen.

Hala ere, EAJren kideen baitan, euskararen erabilpena, arlo enblematikoan, armariaren tankerakoan jarraitu zuen, euskara armarian dutela, komunikazio arruntean baino, eguneroko bizitzatik at. Azken aldian, Bilboaldean behintzat, ingelesaren alde egiten da gehiago, zenbait eraikuntza berrien izenetan ikusi dugunez gero. Aipatzen dudan jokamolde honen begirale eta testigu katalan hizkuntzaren normatibizazioan buru zena Pompeu Fabrak argi eta garbi adierazten du. Bilbon bizi izan zen 1902ko martxotik, Kimikako katedra irabazi zuenetik Injinadore eskolan irakasle izateko. Bilbotarrak ezagutzeko aukera izan zuen. 1906an, Lluís Duran I Ventosa adiskideari besteak beste idatzi zion gutuna argitaratu zuen Borja de Riquerrek. Hona zati bat: 1906an, Lluís Duran I Ventosa adiskideari besteak beste idatzi ziona, garaiko Bilbotar batzuen ikusmoldea eta bereziki euskarari buruzko ezagutzeko:

Bilbao es una ciutat de llengua castellana; San Sebastian-me dieune-s'está castellanisant rapidament. Els bilbains, a casa llur, volen managars-s'ho tot ells sols. Fora ingerencies de gent estrany ! els maquetos que no a fiquin alli aoun no'ls demanen ! Vet-aquí l llur regionalisme...! enamorats de Bilbao, satisfets hiperbolicament del seu engrandiment, en el design de fer-se ls superiors s'arrapen adhuc a la llengua : l'euskara es antiquíssim, no ve de capt altra llengua, es més llengua que l castellá que al cap de vall no es més que un dialecte llatí (i aquí está la cosa: l'euskar per damunt dels castellá...!) però no l parlen !. ni l'entenen!! Un dia he estat al Centro Vasco, vaig veure-hi retorls en Bascuense, no hi vaig sentir enraonar sinó en castellá. Molts que es deixen dir biscaitarres ignoren completament el Bascuense; es tant difícil! La seva gran dificultat(?): Una altra prova de superioritat. “

Sabinen heriotza eta Nikoleren bigarren ezkontza

Heriotzaren aurretik, 1903ko urriaren 21ean, Jose Mendieta Busturiako eskribauaren aurrean Sabineek azken borondateko testamentua agindu zuen: *“declara que carece de ascendientes y descendientes y siendo sus bienes de libre disposición, de todos ellos bien sean raices, créditos, derecos, acciones y de la clases que fuerren y dejase a su fallecimiento en prueba del cariño que la profesa a su repetida mujer Doña Nicolasa Achicallende, a esta misma la instituye y nombra por su heredera universal o única”*. 1903ko azaroaren 25an hil zen.

Dirudienez, Sabinen anaiak eta arrebak, antza denez, delako erabakia, ez zuten guztiz begi onez ikusi. Luis anaia, Nikoleren etxean sartu zen berehala, paper eta liburu guztiak hartu eta eramán egin zituen. Altzariak eta gutun batzuk berriz, gaurregunerarte gordeta eta zainduta heldu dira Mari Karmen Aizpurren arduragatik.

Sukarrietako abadeak Pedro Burgoak gomendaturik, batetik bere burua inguruko ahaideengandik defenditzeko, bestetik, semealabak izateko gogoia zuelako Nikole bigarrenez ezkondu zen Sukarrietako Eugenio Alegriarekin, 1910ko maiatzaren 9an.

Lehenago, Nikolasak itaundu ei zion : *“Zorrik bakozu?”*

Ez. Eztekot dirurik baña zorrik pez” Erantzun ei zion Eugeniok.

Itsasuntzietako kapitaina zen. Ez zuten seme alabarik izan eta laster batean berriz ere alargundu zen, senarra Gijonen 1918ko gripeak jota, hil zitzaion eta.

Nikole, baserrian bizi arren, udarako giroan, bazekian Bilbotar udatiarren giroan ibiltzen. Baina EAJren ekintzetatik erabat urrundurik, edo bazterturik, Luisen eraginez batzuen iritzian, bigarren ezkontza gaizki hartu baitzuten eta.

1937an, Nikoleren espetxeratzea

1937ko maiatzean, “Molaren euskaldunak”, iparraldeko *Euskualduna* euskarazko kazetak adierazten zuen erara esanik, Busturia eta Sukarrietako herriak bere kontrolpean azpiratu zituzten. Busturiako udaletxean jestora berria izendatu zuten eta Ricardo Danboronea Castroviejo “delegado gubernativo” zela, besteak beste, auzokideen salaketak bitarteko eta ondorioz, atxilotetak hasi ziren, falangista bi arduradun zirela.

Nikole ere atxilotua izan zen, S. Aranaren alarguna zelako. Bermeora eramán zuten eta ondoren Bilboko Larrinagako espetxera. Bertan larriki gaixotu zen eta azkenean, bigarren ezkontza ere izan zuela eta 1937ko irailaren 7rako lortu zuen etxera bihurtzea, baina egunero joan behar izaten zuen Solchaga generalaren aurrera, Uhagoneko etxe ederra beretzat harturik baitzuen.

Atxilotuen artean Busturiako 12 herrikide. Bermeon atxiloturik egon ondoren, Bilbon, 1937ko uztailaren 18an militarrek epaiketa itxura egin eta azkenik 8 heriotz zigor agindu. Horietako Jesusa Urrutxuak Roman Zearretari ikaraturik:

-*“Pena de muerte zetako emon duskue guri ba?”*

-*“Ez ein kasurik, esan bai horrek, baie.. guk eztogu ein ezer eta zer eingos -kue guri ba?”.*

Jesusa eta bere ahizpa Karlotak bere burua salbatzea lortu zuten, azken unean beren aldeko testigantza eman zuelako beraien etxean ezkutaturik egon zen eskubitarrak. Beste 6 gizonak ez ziren salbatu : 1937ko abuztuaren 5an fusilatu egin zituzten. Hiru EAJko zinegotziak, D.Kaltzada, A.Zearreta, R. Zearreta. bi “ezker errepublikanotarrak” F.Bilbao, H.Alvarez eta “Erramonaneko” ostaturkoa, D. Lekumberri, euskal abertzale girokoa zena.

Nikolek, gerraostea, isilpean iraun zuen eta 1946ko abenduaren 13an Bermeon testamentua agindu zuen aipatu dugun Mari Karmen.Aizpuru eta bere nebaren alde eta 1951ko martxoaren 20an hil zen.



Sorburuak eta bibliografia

Artikuluan aipatzen diren berrien sorburuak:

-Mari Karmen Aizpuren ondarea eta artxiboa:

- “Capitulado matrimonial de los Señores Don Sabino de Arana y Goiri y Doña Nicolasa de Achica Allende e Iturri” Lorenzo Begoña Ibaizabal, notario público del distrito de Gernika y Luno e Ilustre Colegio de Burgos, residente en Bermeo. 1900eko urtarrilak 29
- Testamento de Sabino Arana Goiri ante José de Mendieta, Notario con residencia en Busturia, distrito de Gernika y “Colegio de Vizcaya”. 1903ko urriak 21.
- Declaración de Nicolasa Achica-Allende ante el registrador de Gernika. 1919ko azaroak 3.
- Contrato matrimonial entre Juan Bautista Iturri y su esposa Magdalena Abiña con Maria Antonia su hija y Jose María de Achica-allende”natural de la anteiglesia de Busturia”Nicolas de Albizua “escribano de S.M. del número de la merindad de Busturia”. 1855eko azaroaren 15.
- Pedro Grijalbaren gutuna. 1904ko azaroak 21. Membretea “El Pueblo Vasco, diario independiente. San Sebastián, redacción.
- Lurren salerosketarako hitzarmen pribatua, Sabino Aranak sinatua.

- Ahozko berri emaileak : Mari Karmen Aizpuru, Elisa Kaltzada, Agurtzane Zigorraga
- Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea:
 - "Correspondencia de Sabino de Arana con Nikole de Atxika-Allende. 1902. Hag, K. 00018,C1.
 - Sabino Arana eta Victor Bilbaoren arteko gutunak. Hag-5-25
- "Centenario de Sabino de Arana y Goiri (1865-1995)" *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, Buenos Aires, 1965, nº16.
- "Homenaje en Sukarrieta" *Aberri*, 25 de junio de 1922
- "Sabindiar- Batza, Arana Goiritar Sabinen zana" *Euzko gogo*, Guatemala, 1951 1951, 32-33
- AGIRREAZKUENAGA J. "Armada frankistaren sarreran : errepresioa eta heriotzak Busturialdean" *La guerra civil en el País Vasco. 50 años después*. Leioa, UPV-EHU, 1987, 329-345 orr.
- AGIRREAZKUENAGA J. Euskal gizartean barrena euskaltzaletasun politikoaren sorrera garaian: zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileen eraketa (1789-1876). Bilbao, Beitia Ed., 1994
- AREILZA J. M., "1865-1995. Otro centenario: Sabino de Arana y Goiri" en *Vizcaya*. Bilbao, Diputación Provincial de Vizcaya, 1965
- ARZAC A., "Apuntes necrológicos. D. Sabino de Arana y Goiri". *Euskal Erria*, Donostia, 1903, 502-504.
- AZURMENDI J. Arana Goiriren pentsamentu politikoak. Donostia, hordago, 1979
- BARAIBAR C., "La genialidad de la obra de Sabino" *Hermes*, Bilbao, 1919, 51-52 zenb., 410-411 orr.
- BUSTINZA E. "Sabin aldez", *Hermes*, Bilbao, 1919, III, 393-396
- CORCUERA J. *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco. 1876-1904*. Madrid, Siglo XXI, 1979
- CORCUERA J., ORIBE Y., *Historia del nacionalismo vasco en sus documentos*. Bilbao, 1991. III, liburuki.
- ELIZONDO Mauro, *Sabino Arana padre de las nacionalidades. Correspondencia inédita de los hermanos Arana Goiri. Legajo Aranzadi*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1981, II liburukia
- Euzkadi*, 1914, Nov. XI, 247-249.
- GURRUCHAGA I., "Figura y obra de Sabino de Arana" *Euzko Deya*, nº345. Buenos Aires 1948. Maria Luisa SAN MIGUELEk prestatuturiko liburuan. I. Gurruchaga, Reflexiones sobre mi País. Donostia, Ed.Saturrarán,2002, 89-94 orr.
- Patria Vasca*, Bilbao,1932, 6 zenbakia
- Hermes. Revista del País Vasco*. Bilbao, 1919. nos.51-52, 385-440.
- IMANOL (M. AZNAR), "Monumento a Sabino de Arana Goiri. El proyecto de Beascoetxea", *Novedades*, Donostia, 1915, 292 zenb.
- JEMEIN C. *Índice de las obras completa S. de Arana Goiri*. Pau, 1948
- LA COLONIA de Pedernales Sukarrieta 1925-2000. Bilbao, BBK, 2000

- LARRONDE J.C. *El nacionalismo vasco :su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*. San Sebastian :Txertoa,1977
- ORUETA E. Sabino de Arana en su vida y en su muerte”. *Euzkerea*, 1935, 749-757
- RIQUER B. “El primer nacionalisme basc segons Pompeu Fabra” in *L’Avenç*, Barcelona, 2001, Zenb. 258, 53 orr.
- TURUZETA J., *Cien años de nacionalismo vasco. 1895-1995*.Bilbao, ed. Iparraguirre, 1995.
- U. “Datos para la biografía de Arana Goiri’tar Sabin”, *Euzkerea*, Bilbao, 1935, 742-743.
- ZALBIDE M. “Hendai-Hondarrietako biltzarra: Ortografia aitzaki, Eskualzaleen